



OHIKO GALDERAK

IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO HOBEKUNTZARAKO DOKTORETZA-ONDOKO PROGRAMAKO LAGUNTZEN
ESKABIDEAK AURKEZTEA, 2024-2027 ALDIA

Edukia

1.	Norengana jo behar dut nire zalantza guztiak argitzeko?	2
2.	Interneteko zein nabigatzaile erabili behar dut eskabidea osatzeko?	2
3.	Zer erabiltzaile eta pasahitz erabili behar ditut?	2
4.	Nola funtzionatzen du BakQ programak?	2
5.	Nola lor dezaket BakQ?	3
6.	BaQ bat eska dezaket hirugarren baten izenean?	3
7.	BakQ dut, baina pasahitza eta koordinatuak ahaztu ditut	3
8.	BaQ edo beste ziurtagiri elektronikoren bat badut, non eta nola egin behar dut eskaera?	3
9.	Eskaera online betetzen ari naiz, baina arazo teknikoak ditut. Norengana jotzen dut?	4
10.	Akats hau azaltzen zait aplikazioan: V90.comun.error.generico	5
11.	Nola konfirmatu dezaket eskabidea behar bezala amaitu dudala?	5
12.	Zer dokumentu aurkeztu behar ditut laguntzaren eskaeran?	5
	Eskaera BERRIA	5
	2. berriztapena	6
	3. berriztapena	6
13.	Non aurki ditzaket beharrezkoak diren txantiloiak?	7
14.	Zein epe daukat eskabidea aurkezteko?	7
15.	Aurkeztutako dokumentazioaren zuzenketak	7
16.	Elkarrizketa pertsonalak	7
17.	Esleipenak	7



1. Norengana jo behar dut nire zalantza guztiak argitzeko?

- Web orrian [doktoretza ondoko programari](#) buruzko informazio zehatz guztia aurkituko duzu, bai eta zure eskabidea osatzeko sarbidea ere, [Aplikaziorako sarbidea](#) aukeran sakatuta.
- Herritarrentzako arreta-zerbitzu orokor gisa, zure erreferentzia Zuzenean Zerbitzua da (telefonoa: 012/945-018000).
- Zure kontsultak posta elektronikoz ere bidal ditzakezu helbide honetara: hezkuntza.ikerketa@euskadi.eus

2. Interneteko zein nabigatzaile erabili behar dut eskabidea osatzeko?

Aplikazioa diseinatuta eta optimizatuta dago Mozilla Firefox nabigatzailearekin erabiltzeko Windows ingurune batean, edozein bertsiotan. Doan deskargatu eta instalatu dezakezu ordenagailuan. Google Chrome edo Edge ere erabil dezakezu. Aplikazioa ez da bateragarria Internet Explorer-ekin. Telefonoz izapiderik ez egitea gomendatzen dizugu, arazoak sortzen baititu.

3. Zer erabiltzaile eta pasahitz erabili behar ditut?

Eskabidea erabat elektronikoa da, eta nahitaezkoa da baliozko ziurtagiri elektroniko bat izatea. Esteka honetan, [identifikazio elektronikorako bitarteko baliodunei buruzko informazio](#) guztia duzu.

Oraindik ziurtagiririk ez baduzu, [BakQ](#) ateratzea gomendatzen dizugu. Identifikazio elektronikorako oso bitarteko erraza da, administrazioekin telematikoki harremanetan jartzeko aukera ematen duena. Ziurtagiri honekin ez da euskarri berezirik behar.

Kontuan izan BakQ ez den ziurtagiri bat erabili behar baduzu zure ordenagailuan instalatu beharko duzula [idazkidesktop](#). Era berean, garrantzitsua da gogoraraztea idazki honek ez duela onartzen gailu mugikorren NFC bidezko sinadurarik (irradi-frekuentzia bidezko identifikazio-teknologia, NANaren azken bertsioetan eskuragarri dagoena). Kasu horietan, txartel-irakurgailu baten bidez konektatu beharko da.

4. Nola funtzionatzen du BakQ programak?

BakQ identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitarteko bat da, identifikatzaile batek eta bi autentifikazio-faktorek osatzen dutena:

- Erabiltzailea (erabiltzailearen NAN/AIZ)
- Pasahitza (8 karaktere)
- Koordinatu-joko bat, 16 posizioekin, 2021eko otsailaren 2a baino lehen eskatuz gero, edo SMS bidez zure telefono mugikorrera bidalitako kode bat.

Ordenagailuetan, mugikorretan eta tabletetan erabil daiteke, edozein sistema eragiletan, eta ezer instalatu beharrik gabe. Gainera, BakQ bat eskatzeak berekin dakar Bak ere erabiltzeko aukera, baina kontuan izan Bak ez dela baliozkoa eskabidea sinatzeko, soilik BakQ. [Izenperen](#) webgunean duzu identifikazio-bitarteko horri buruzko informazio guztia.



5. Nola lor dezaket BakQ?

Izenperen herritartasun-ziurtagiri bat edo NAN elektronikoa bat baduzu, online eska dezakezu. Bestela, aurrez aurreko arretarako 600 puntu baino gehiagotara joan zaitezke BakQ eskatzeko.

Hona hemen eskuragarri dauden zentroak:

- Unibertsitateak (unibertsitate bakoitzeko ikasleentzat soilik)
- KZgunea: Euskadiko udalerrri askotan eskuragarri dago KZgunea. Esteka honetan, zure etxetik hurbilen duzun KZgunea bila dezakezu: <https://www.kzgunea.eus/eu/zentroak>.
- Gizarte-etxeak eta beste erakunde batzuk: udal, foru-aldundi, gizarte-etxe eta osasun-zentro askotan lor dezakezu. Kontsultatu hemen [BakQ eskaera-puntuak](#)

6. BaQ bat eska dezaket hirugarren baten izenean?

Ez, hirugarren pertsona batek ezin du inola ere izapidetu BakQ baten eskaera beste baten izenean, ezta legezko ordezkaritza, tutoretza edo antzeko kasuetan ere. Kasu horietan, ordezkariak bere BakQ eskatu beharko du, eta ordezkaritza lehen pertsonan gauzatu beharko du dagokion zerbitzuaren aurrean.

7. BakQ dut, baina pasahitza eta koordinatuak ahaztu ditut

BakQ-en kudeaketa guztiak kudeaketa-tresnen ataritik egin daitezke: <https://servicios.izenpe.com/jbbak/>

8. BaQ edo beste ziurtagiri elektronikoren bat badut, non eta nola egin behar dut eskaera?

Hezkuntzako web-orrian sartu behar duzu, Ikerketa Karreraren/Doktoratu Aurreko Programaren eremuan. Sakatu "Eskaerara sartu" eta identifikatu zure ziurtagiri elektronikorekin.

Helbide honetan ere sar zaitezke:

<https://www1.hezkuntza.net/y44BecPolCieWar/y44MantenimientosJSP/y44Login.do?idioma=eu>



Inicio

eu | es

Estás en: Inicio

Identificación de usuario/a

Correo electrónico:

Contraseña:

La aplicación esta optimizada para Firefox e IE, y en el caso de utilizar Firefox es necesario comprobar la configuración de el documento para poder imprimir.

Aceptar

[He olvidado mi Contraseña](#)

[Nuevo Usuario/a](#)

Certificado digital

Identificación de usuario/a



Aceptar

[Información sobre los tipos de certificados digitales aceptados](#)

[Requisitos Técnicos](#)

[Sobre la firma con Juego de Barcos](#)

Y44 - Política Científica

Hortik aurrera, urrats hauek egin behar dituzu:

- ✓ Eskaera berri bat sortu.
- ✓ Bete ezkerreko menuko erlaitz guztiak. Erlaitzak bete ahala, honako hauek aktibatuko dira.
- ✓ Erantsi zure espedienteari eskabide-inprimakian zehaztutako nahitaezko dokumentu guztiak.
- ✓ Eskabidea elektronikoki sinatu zure ziurtagiri digitalarekin.
- ✓ Eskabidearen aurkezpen-data eta erregistro-zenbakia jasotzen dituen egiaztagiri bat deskargatu.
- ✓ Eskaera oraindik ere «Zirriborroa amaitu gabe» egoeran badago, ez dago behar bezala aurkeztuta eta ez dauka baliorik ez, nahiz eta datuak osatu.

9. Eskaera online betetzen ari naiz, baina arazo teknikoak ditut. Norengana joko dut?

- Lehenik eta behin, Firefox Mozilla nabigatzailea erabiltzea gomendatzen dizugu, aplikazioak arazoak sor baititzake beste nabigatzaile batzuekin.
- Hori ez bada arazoa, frogatu izapidea beste une batean egiten, batzuetan aplikazioa blokeatu egin baitaiteke.
- Zuzenean Zerbitzura ere dei dezakezu (012/945 01 80 00). Ezin badute konpondu, zure deia Ikerketa Zuzendaritzara bideratuko da.
- Sinadura elektronikoarekin arazoak badituzu, jarri harremanetan erabiltzaileen arretarako zentroarekin, 945 016 290/900 840 123 telefonoen bidez edo helbide honetara mezu elektronikoa bidalita: cau-izenpe@izenpe.eus
- Mezu elektronikoa ere bidal dezakezu hezkontza.ikerketa@euskadi.eus helbidera, arazoa zein den zehatz-mehatz azaltzeko eta errorearen pantaila-argazki bat eransteko. Zure NANA eta izen-abizenak ere adierazi behar dituzu.



10. Akats hau azaltzen zait aplikazioan: V90.comun.error.generico



Akats hori gertatzen da estandarra ez den karaktereak daudelako. Izan daiteke, edo sartutako testua beste leku batetik kopiatu da, adibidez, Wordetik edo izaera ez-komunen batetik (zeinuak & % \$, azentuak).

Testu-koadroan zuzenean idatziz, beste leku batetik itsatsi gabe, akats hori saihesten da.

11. Nola konfirmatu dezaket eskabidea behar bezala amaitu dudala?

- Aplikazioa amaitu aurretik, sinadura elektronikoa eskatuko dizu, eta erregistratu ondoren, erregistro-data eta -zenbakia agertuko dira.
- Eskaera behar bezala amaituta dagoenean, "Aztertzen" egoeran agertuko da. "Zirriborroa aurkeztu gabe" jartzen badu, horrek esan nahi du ez duzula amaitu.
- Eskaeraren sarrera-erregistroaren egiaztagiria deskargatu ahal izango duzu, ondorengo edozein erreklamazio motatarako ezinbesteko dokumentua.
- Online inprimakiaren kopia bat ere deskargatu ahal izango duzu, bete dituzun datu guztiekin.

12. Zer dokumentu aurkeztu behar ditut laguntzaren eskaeran?

Eskaera BERRIA

Laguntza BERRI bat eskatuz gero, dokumentazio hau aurkeztu behar duzu:

- EAEn erroldatuta egotearen ziurtagiria, laguntza-eskabidea aurkezteko irekitako epean emana. Baldintza da EAEn erroldatuta egotea gutxienez 2020ko urtarrilaren 1etik (Ikerketa Orokorra) edo 2024ko urtarrilaren 1etik (Ikerketa Espezifikoa). Ziurtagiriak eskabideak aurkezteko epean eginda egon behar du.
- Doktore-titulua edo titulu horren eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, titulua lortu den datarekin batera.
- Ezarpen-zentroaren konpromisoa kontratua formalizatzeko, zentroaren legezko ordezkariak sinatuta.
- Proiektua onartzeko (2025 eta 2026 urteak) eta baliozkotzeko dokumentua (atzerriko zuzendariaren sinadura)
- Atzerriko ikerketa-proiektuaren zuzendariaren CVa, hark sinatua. OSO GARRANTZITSUA: jardueraren azken 6 urteak soilik jaso behar dira, urtea zehaztu behar da.
- Hobekuntza-programaren proposamena, proiektuaren zuzendariak sinatuta (gehienez 6 orrialde)
- Ikerketa-talde hartzaileari buruzko memoria (gehienez 5. or.)
- OSO GARRANTZITSUA Ikertzaile Talde Hartzailearen proiektuaren zuzendariaren CV normalizatua: jardueraren azken 6 urteak soilik jaso behar dira, urtea zehaztu behar da.
- 2027an sartuko den eta 2028an jarraituko duen ezarpen-zentroko proiektuaren zuzendariak sinatutako ziurtagiria.



- Eskatzailearen curriculum vitae.
- Bi erreferentzia-/abal-gutun.

Hala badagokio, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Tesi-gordailuaren egiaztagiria/Doktore-titulua lortzeko zuzendariaren eskutitza aurtengo urrirako.
- Aginduan jasotako daten arteko etenaldiagatik doktoregoa lortzeko epea luzatu izana justifikatzeko agiriak.
- Enbaxadako erregistro-ziurtagiria.
- Beste erkidego batean erroldatuta egotea.
- Egoitza-baimena Europar Batasunetik kanpoko langileen kasuan.
- Doktoretzako prestakuntza- edo hobekuntza-ikasketak egiaztatzen dituen ziurtagiria (EAetik kanpo bizi bada)
- Eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenean jasotako baieztapenak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
- % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa duela egiaztatzen duen agiria.

2. berriztapena

- Laguntza jaso zuenetik ikerkuntzan hobetzeko egindako jardueren txostena (gehienez 3. or.) Ingelesez idatzitako txostenak onartuko dira.
- Eskatzaileak egindako ikerketa- eta prestakuntza-jarduerei buruzko aldeko txostena, atzerriko proiektuaren zuzendariak sinatua, eta hurrengo urteetarako aurreikuspenak.
- Ikerketa-hobekuntzarako programaren eguneratze-memoria (gehienez 2 orrialde), eskatzaileak 2025. eta 2026. urteetan egin beharreko jarduera guztiak bilduko dituena. Memoriak ezarpen-zentroko ikertzaileekin eta, hala badagokio, EAeko beste ikerketa-zentro batzuetakoekin eta atzerriko zentrokoekin lankidetzan jarduteko modua adierazi behar du.
- Ezarpen-zentroaren konpromisoa, bertako legezko ordezkariak sinatua (Ikerketako errektoreordeak, unibertsitateen kasuan), lehendik dagoen lan-kontratua beste urtebetez luzatzeko.
- Unibertsitateen kasuan, ezarpen-zentroak kontratua luzatzeko konpromisoarekin batera, eskatzaileak egiaztatu beharko du unibertsitateko sail batek 2025erako eta 2026rako onartu duela.

3. berriztapena

- Laguntza jaso zuenetik ikerkuntzan hobetzeko egindako jardueren txostena (gehienez 3. or.) Ingelesez idatzitako txostenak onartuko dira.
- Eskatzaileak egindako ikerketa- eta prestakuntza-jarduerei buruzko aldeko txostena, proiektuaren zuzendariak sinatua.
- Ezarpen-zentroaren konpromisoa, bertako legezko ordezkariak sinatua (Ikerketako errektoreordeak, unibertsitateen kasuan), lehendik dagoen lan-kontratua beste urtebetez luzatzeko.
- Ikerketa-hobekuntzarako programaren eguneratze-memoria (gehienez 2 orrialde), eskatzaileak 2025ean egin beharreko jarduera guztiak bilduko dituena. Memoriak ezarpen-zentroko ikertzaileekin eta, hala badagokio, EAeko beste ikerketa-zentro batzuetakoekin eta atzerriko zentrokoekin lankidetzan jarduteko modua adierazi behar du.



13. Non aurki ditzaket beharrezkoak diren txantiloiak?

Eskaera bat aplikazioan alta eman ondoren sartzen da txantiloietara, dokumentazioa aurkeztean. Beharrezkoa bada, aurkeztu beharreko dokumentuaren ondoan txantiloia agertuko da.

14. Zein epe daukat eskabidea aurkezteko?

Eskabide berriak eta berritzeak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epea 2024ko maiatzaren 31an irekiko da, 00:00, eta uztailaren 1ean itxiko da, 23:59etan.

15. Aurkeztutako dokumentazioaren zuzenketak

Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epe luzaezinean zuzen dezala eskabideko edo eskatutako dokumentuetako akatsa. Interesdunak dokumentazio hori aurkezten ez badu edo falta hori zuzentzen ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Zuzentzeko errekerimenduaren jakinarazpena zuzendu beharreko eskabideen zerrenda egoitza elektronikoen [iragarki-taulan](https://www.euskadi.eus/iragarki-taulan) argitaratuz egingo da. Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat bidaliko zaizu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/> . Ziurtagiri elektronikoen bidez sartu beharko duzu bertara.

16. Elkarriketa pertsonalak

Eskabideak zuzentzeko epea igaro eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen lehen ebazpena emango du. Era berean, ebazpen horretan adieraziko da noiz egingo diren elkarriketa pertsonalak, arlo bakoitzeko aholku-batzorde espezifikoei baloratu beharrezkoak. Ebazpen hori egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz egingo da jakinarazpena (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>). Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat bidaliko zaizu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/> ; ziurtagiri elektronikoen bidez sartu beharko duzu bertara.

17. Esleipenak

Emandako laguntzak egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz egingo da jakinarazpena (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>). Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat bidaliko zaizu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/> . Ziurtagiri elektronikoen bidez sartu beharko duzu bertara.